

Usurbilgo Udala

## 2018KO MARTXOAREN 5EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

#### Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka  
Jone Urdampilleta Urdampilleta  
Iñaki Ugarte Agirre  
Irene Gartzia Palacios  
Miren Josune Estella Arranz  
Jose Mari Iribar Zapirain  
Josune Urkola Larrarte  
Andoni Atxega San Sebastian  
Carlos Perez Fraisoli  
Fermin Orue-Echevarria Iturri

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel

**Kontu-hartzailea:** Karmele Lizaso Ubera

**Ezin-etorria adierazi dute:** Xuban Zubiria Elexpek eta Mirari Azurmendi Sorazuk.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2018ko martxoaren 5ean arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

### 1.- ZUMARTE MUSIKA ESKOLA BIRGAITU ETA HANDITZEKO EXEKUZIO PROIEKTUA ONARTZEA.

Alkateak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu.

Hirigintza batzordean diktaminatuta datorrela eta ibilbide luzea duela zehaztu du eta, jarraian, azpimarratzekoak diren puntuak aipatu ditu.



Usurbilgo Udala

Proiektuaren kontzepzioari buruz aipatu du Zumarte Musika Eskola birgaitzeko eta handitzeko proiektua dela, eta horrek esan nahi duela dio hobetsi dela dagoen eraikina birgaitzea, izan ere eraikin horrek bere garrantzia eta interesa duela iruditzen baitzaie.

Bestalde, birgaitze hori ikuspegi ekologikoa landuz egingo dela azpimarratu du eta hori proiektuaren oinarrietan bertan ikusten dela esan du.

Elkarlan prozesu baten emaitza dela esan du. Elkarlan horretan parte hartu dutela zehaztu du bai udal teknikariek, bai proiektuaren egileek eta baita Zumarte Musika Eskolaren erabiltzaileek ere. Halaber, ez maila berean baina Orbeldi dantza taldeko kideek ere parte hartu dutela gaineratu du.

Hasieratik garbi izan dutela dio proiektu honek zerbait erantzun behar bazion, Zumarte Musika Eskolaren beharrei erantzun behar ziela. Baina, era berean, adierazi du aukera ireki zitzaiola dantza taldeari ere bertan espazio bat izan zezan.

Elkarlan horretan proiektuaren definizioa aurrera eramateko denen aldetik oso borondate ona egon dela txalotu du.

Gobernu honek legegintzaldi hasieratik komentatu izan duen bezala, beraientzat proiektu oso garrantzitsua izango dela gaineratu du.

Proiektua OS3 arkitektura taldeak egin duela aipatu du.

Oraingo fasean aurkeztu den exekuzio proiektuari buruz esan du zehaztasun maila handikoa dela, lan sakon hori egiteak denbora gehiago behar izatea eskatzen duela, baina exekuzioari begira zehaztasun maila horrek nolabaiteko berme bat edo oinarri sendo bat ematen duela.

Udaleko teknikariek proiektua aztertu dutela eta txostenean aipatzen dutela dio ze arlotan aritu diren azterketa lan horretan:

- hirigintza parametroen betetzean, hirigintza fitxa eta proiektuaren ezaugarriak egokitze aldera jardun direla eta hor neurri zuzentzaileak hartu direla.
- musika eskola hezkuntza sailari dagokion eraikina denez, betebeharreko batzuk badirela eta horiek betetzeko neurriak hartu direla.
- kode teknikoari dagokionez, larrialdiak, seinalizazioak, azterketa akustikoa... zorrotz aztertu direla.
- irisgarritasuna, izan ere proiektu honen beharra justifikatzeko erabiltzen den argudio nagusietako bat baita.
- eraginkortasun energetikoa eta esku-hartze jasangarriari begira ere aparteko lana egin dela eta horren ondorioetako bat dela dio erabiliko den berotze sistema, geotermia.



Usurbilgo Udala

- aurrekontuari begira, teknikarien aldetik lanketa berezi bat egin dela azpimarratu du, izan ere hainbat puntutan prezioak doitu zitezkeela uste baitzuten.
- azpiegiturei dagokienean, zerbitzuen atalean eta ingurumen atalean urbanizazioak eta eraikinak betebeharrekoak bereziki landu direla azaldu du.

Amaitzeko aipatu du hirigintza batzordean proiektua aurkeztu zela, proposamena diktaminatu zela eta gaur hona dakarten irizpenaren puntua irakurri du.

Batzarkideek, Hirigintza batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho atez onartu dute, honako testuaren arabera:

“Esp. Zenbakia: HZ.10/2017-0082

## AURREKARIAK

Musika Eskolako beharren azterketa eta bertako eskaerak jaso ondoren, Udalak Zumarte Musika Eskola haunditzeko prozesua abian jartzea erabaki zuen.


Hala, Zumarte Musika Eskolaren Haunditze eta Birgaitze Ekologikoa egikaritzeko jarraitu beharreko irizpide eta eskakizunak jasotzen zituen Baldintza Tekniko eta Administratiboen Dossiera prestatu ostean, 2016ko maiatzaren 10ean, Udala OS3, OREKA, MID eta VAUMM arkitektura taldeekin bildu zen Zumarte Musika Eskolaren Haunditze eta Birgaitze Ekologikoa egikaritzeko Udalaren irizpide eta eskakizunak aurkeztu eta beren proposamenak aurkezteko gonbidapena luzatzeko.

2016ko uztailaren 8an OS3 Arkitektura Taldeak (Juan Pedro Otaduy Zubizarreta, Maialen Sagarna Aranburu eta Ainara Sagarna Aranburu) Zumarte Musika Eskolaren Haunditze eta Birgaitze Ekologikoa egikaritzeko Proposamena aurkeztu zuen. Gainontzeko hiru arkitektura taldeak uko egin zioten proposamena aurkezteari.

OS3 Arkitektura Taldeak 2016ko uztailaren 21ean aurkeztu zuen bere proposamena Hirigintza Batzordean.

Udalak aurrez zehaztutako Baldintza Tekniko eta Administratiboen Dossierrean oinarrituz, udal arkitektoak, Ekhiñe Egituren Azkune andereak, 2016ko irailaren 13an ALDEKOA txostena eman zuen, aurkeztutako proposamena zehaztutako irizpide eta eskakizunetara egokitzen zela adieraziz.

Hala 2016ko irailaren 16an, Alkateak, 2016/0885 dekretuaren bidez, Zumarte Musika Eskolaren birgaitze ekologikoa eta handitze Oinarriko eta Exekuzio Proiektuak idazteko Zerbitzuen kontratu txikia JUAN PEDRO OTADUY ZUBIZARRETA, MAIALEN SAGARNA ARANBURU eta AINARA SAGARNA ARANBURU arkitektoei (OS3 Arkitektura Taldea) esleitzea erabaki zuen.



Usurbilgo Udala

2017ko otsailaren 17an, OS3 Arkitektura Taldeak (Juan Pedro Otaduy Zubizarreta, Maialen Sagarna Aranburu eta Ainara Sagarna Aranburu) Zumarte Musika Eskolaren birgaitze ekologikoa eta handitze Oinarriko Proiektua aurkeztu zuen.

## EXEKUZIO PROIEKTUA

Geroztik berri, 2017ko abenduaren 1ean, OS3 Arkitektura Taldeak (Juan Pedro Otaduy Zubizarreta, Maialen Sagarna Aranburu eta Ainara Sagarna Aranburu) Zumarte Musika Eskolaren birgaitze ekologikoa eta handitze Exekuzio Proiektua aurkeztu zuen. 2018ko otsailaren 15ean berriz, dokumentazio osagarria aurkeztu zuen.

## TXOSTEN TEKNIKOAK

Aurkeztutako proiektua aztertu ostean, udal arkitektoak, Jone Miner Aginaga andereak, 2018ko otsailaren 22an ALDEKO txostena eman du. Hitzez hitz honela dio

**BULEGO TEKNIKOA**  
**Udal Teknikariak Alkate jaunari**  
**UDAL EKIPAMENDUAK**

**ZUMARTE BIRGAITU ETA HANDITZEKO EXEKUZIO PROIEKTUARI**  
**TXOSTENA**

---

KOKAPENA: Kale Nagusia, Usurbil.  
AURKEZPEN DATA: 2018ko otsailaren 15a

---

### **1. AURREKARIAK.**

- 2016ko uztailaren 8an OS3 Arkitektura Taldeak Zumarte Musika Eskolaren Haunditze eta Birgaitze Ekologikoaren proposamena aurkeztu zuen Usurbilgo Udalean.
- 2017ko otsailaren 17an Maialen Sagarna Aranburu andereak Zumarte Haunditzeko eta Birgaitzeko Oinarriko Proiektua aurkeztu du Usurbilgo Udalean.
- 2017ko maiatzaren 5ean zerbitzu eta mantenu saileko buruaren txostena.
- 2017ko maiatzaren 10ean udal arkitektoaren txostena.
- 2017ko uztailaren 26an Maialen Sagarnak eskaera aurkeztu du Proiektua aurkezteko epea luzatzeko eta ordainsarien %40a ordaintzeko adieraziz.
- 2017ko abenduak 1ean Maialen Sagarna Aranburu andereak Zumarte Birgaitu eta Handitzeko Exekuzio Proiektua aurkeztu du Usurbilgo Udalean.
- 2018ko urtarrilaren 18an Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako Hezkuntza Delegaziora bidali da Proiektua.
- 2018ko urtarrilaren 25ean udal arkitektoaren txostena dokumentazio osagarria eskatuz.
- 2018ko otsailaren 8an udaleko zerbitzu eta mantenu saileko buruaren txostena.



Usurbilgo Udala

- 2018ko otsailaren 9an udaleko ingurumen eta nekazaritza teknikariaren txostena.
- 2018ko otsailaren 15ean Ainara Sagarnak dokumentazio osagarria aurkeztu du.
- 2018ko otsailaren 15ean Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako Hezkuntza Delegazioko txostena.

## 2. TXOSTENA.

OS3 Arkitektura Taldeak Zumarte Birgaitu eta Handitzeko Exekuzio Proiektuari eransteko dokumentazio osagarria aurkeztu du Udalean; dokumentazioa teknikari gaituak izenpetuta dago baino dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsi gabe.

Aurkeztutako dokumentazioa honakoek osatzen dute: txostenak eta CDak. Txostenean puntuz puntu erantzuten dira udal arkitektoak urtarrilaren 18an egindako txostenean eskatutakoak; Cdan, berriz, egokitutako proiektu osoa aurkeztu da (01 memoria berrikusia (eranskinak barne), 02 planoak berrikusia, 03 baldintza plegua berrikusia eta 04 aurrekontua berrikusia).

Aurkeztutako dokumentazio aztertu ostean, honakoak esan daitezke:

- **HIRIGINTZA PARAMETROEN BETETZEA:** Eraikuntzaren okupazioa eta lerrokadurak betetzen direla ziurtatzeko, Usurbilgo AASSTBetako fitxako lerrokadurak eta eremuaren muga eraikinaren oinplantekin gainjarrita agertzen diren planoak eskatu zen. **Memoriari erantsitako 16. eranskinean jaso da eskatutakoa eta lerrokadurak betetzen direla ikusi da.**
- Erabilerari dagokionez, ordea, indarrean dagoen hirigintza fitxak honakoa jasotzen du: sotoa: garaje-biltegi, trasteleku; behe solairua: aisialdi-kulturala eta solairuak: aisialdi-kulturala. Proiektua aztertutakoan ikusi da sotoko erabilera ere beste solairuetako berbera dela; hau da, ez dela garaje-biltegi edota trasteleku erabilera, aisialdi-kulturala baizik. Beraz, **udalak dagokion planeamendu egokitzapena izapidetu beharko du; aldaketa honek eraikinaren lehen erabilera baimena ematerako eginda egon beharko du.**
- **MUSIKA-ESKOLEI BURUZKO 289/1992 DEKRETUA:** fonoteka eta entsaio-gelek ez zuten gutxieneko azalera betetzen gutxigatik eta egokitzeko eskatu zen. Orain zuzenduta aurkeztu diren planoetan eta memorian gutxieneko azalera betetzen direla ikusi da. Gainera, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren aldeko txostena jaso da. **Bertan esaten direnak bete beharko dira ezinbestean.**
- **ERAIKUNTZAREN KODE TEKNIKOA BETETZEA:**



Usurbilgo Udala

- **DB-SUA-2:** lehenengo solairuko komuneko atea ez zuen araudia betetzen. “1.2. *Impacto con elementos practicables*” atalean jasotakoa betetzeko eskatu zen. Bestalde, “1.3. *Impacto con elementos frágiles*” atala betetzeko ere eskatu zen, aurrekontuan zehaztuz beiradun ate eta itxiturek bete behar dute hausturarako erresistentzia. **ALDAKETAK AURKEZTU DIRA.**
  - **DB-SUA-4.2:** Larrialdiko argiteria planoetan ez zen ikusten. **PLANOAK ZUZENDU DIRA.**
  - **DB-SUA-9.** Seinalizazioko elementuak aurrekontuan sartzeko eskatu zen. **AURKEZTU DA.**
  - **DB-HR.** Laecor enpresak egindako azterketa akustikoan ez zen zehazten zarataren babesari buruzko DB-HR araudia betetzen zen edo ez; horregatik, araudiaren justifikazioa aurkezteko eskatu zen. **AURKEZTU DA**
- 
- **IRISGARRITASUN ARAUDIA BETETZEA:** Araudiak eskatutakoak betetzen direla ziurtatzeko plano argigarri bat aurkezteko eta Irisgarritasun fitxan jasotzen diren elementu guztiak aurrekontuan barneratzeko eskatu zen. **AURKEZTU DIRA**
  - **ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA , ESKUHARTZE JASANGARRIA:** Eraikinaren sarrerako gunea gehiegi ez berotzeko eta bertako aireztapena ziurtatzeko proposatzen diren 2 ateez gain beste bi irekidura jartzea proposatu zen, alde bakoitzean bana. **Iparraldeko fatxadan leiho irekigarri bat gehitu da aireztapen gurutzatua bermatzen dela adieraziz.**
  - **AIREZTAPEN INSTALAZIOA:** ez zen garbi gelditzen proposatzen den sisteman aire garbia berotzeko energiarik erabiltzen den edo ez edota freecoolinga erabiltzen ote den. **Aurkeztutako txostenean zehaztu da aireztapen makinek bero errekuperatzaileak dituztela eta ez dela akanpoko airea berotzeko energia gehigarrikerik erabiliko.**
  - **URBANIZAZIO OSAGARRIA:** Aurkeztutakoa ontzat ematen da.
  - **AURREKONTUA:** zenbait arotzeria eta argiztapen elementu merketzeko aukerak aztertzea proposatu zen. Larrialdiko argiteria bakarrik merketu da. **Beraz, aurreko txostenean zehaztu ziren arotzeria eta argiztapen elementuak merketzeko aukerak obran berraztertzea proposatzen da, betiere hauek bete beharreko ezaugarri teknikoak mantentzen direla ziurtatzen den bitartean.**
  - **AZPIEGITURAK ETA BESTE:** Zerbitzuetako buruaren txostenera bideratzen da. Ezkiari, teilatu berdeari eta urbanizazioko berdegune eta landareei buruz, berriz, ingurumen teknikariaren txostenera.



Usurbilgo Udala

### 3. ONDORIOAK.

**Goian aipatutakoari jarraiki Exekuzio Proiektuari ALDEKO txostena idazten zaio honako baldintzak betetzekotan:**

- Proiektua Arkitektoen Elkargoak ikus-onetsita aurkeztu beharko da 10 eguneko epean
- Udalak dagokion planeamendu egokitzapena izapidetu beharko du indarrean dagoen hirigintza fitxaren sotoko erabilera aldatzeko; aldaketa honek eraikinaren lehen erabilera baimena ematerako eginda egon beharko du.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren aldeko txostenean jasotzen direnak bete beharko dira.
- Oro har, indarrean den araudia bete beharko da. (EKT, Irisgarritasun Araudia, e.a.)
- Aurreko txostenean zehaztu ziren arotzeria eta argiztapen elementuak merketzeko aukerak obran berraztertzea proposatzen da, betiere hauek bete beharreko ezaugarri teknikoak mantenduz.
- Azpiegiturei dagokienez, zerbitzuetako buruaren txostenera bideratzen da. Ezkiari, teilatu berdeari eta urbanizazioko berdegune eta landareei buruz, berriz, ingurumen teknikariaren txostenera.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2018ko otsailaren 22an.  
UDAL ARKITEKTOA  
Izta.: Jone Miner Aginaga


Aurkeztutako proiektua aztertu ostean, Zerbitzuak eta Mantenua saileko buruak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, 2018ko otsailaren 8an ALDEKO txostena eman du. Hitzez hitz honako ondorioak biltzen ditu bere txostenean:

(...)

Zumarte birgaitzeko exekuzio proiektuan Udal zerbitzuetako ur zikinen, euri uren eta ur edangarriaren lotune eta hartuneei buruzko aldeko txostena ematen da, hurrengoak betetzekotan:

#### SANEAMENDUA

1. Ur zikinen eta euri urak urbanizazioan eraikita dauden kutxetara bideratuko dira. Ereku publikoan instalatzen diren euri-uren eta ur-zikinen hodian gutxienezko diametro 315 mm izango da.
2. Hodia PVC zurruna motatakoa izango da.



Usurbilgo Udala

3. Kutxeta tapak Fundibide etxeokak izango dira eta Usurbilgo armarria eramango dute. Kutxeta tapen testua: Euri urak - Usurbilgo Udala, Ur zikinak - Usurbilgo Udala.
4. Obra amaitutakoan, hartunek adierazten dituen planoak aurkeztuko dira.

#### UR EDANGARRIA

1. Hartunek eta instalazioa burutuko dira, ur homiketako CTE-DB-HS4 oinarrizko arauen arabera, udal zerbitzu teknikoek adieraziko duten tokian.
2. Aquarius markako kontagailua eta irakurketa modulua instalatuko da.
3. Ebaketako giltzak jarriko dira kontagailuen aurretik eta atzetik.
4. Itzultze aurkako balbula instalatuko da.
5. Kontagailua, eraikuntzaren aurrealdean jarriko da, Pan Inter kutxatila baten barruan, udal zerbitzu teknikoek adieraziko duten tokian.
6. Ura hartu baino lehen, instaladoreak prestatu eta Industria sailak onartu eta zigilaturiko "edateko uraren instalazioaren ziurtagiria" aurkeztuko da.
7. Sare nagusian ura kendu gabe egingo da hartunea.
8. Instalatuko diren hodiak, gaur egun dauden hodian azpitik pasako (Saneamendua, ur sarea, herriko argi sarea, etab.en azpitik hain zuzen.)
9. Obra hasi aurretik, egungo instalazioen kokapena zehaztuko da. Udal instalakuntzak Udal zerbitzu teknikoek bidez eta beste instalazioak dagokion enpresa hornitzaileen bidez.
10. Hondatzen diren materialak birjarriko dira.

2018ko otsailaren 8an  
Zerbitzuak eta Mantenua saileko buruak  
Felix Aizpurua Arzallus

Aurkeztutako proiektua aztertu ostean, Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, 2018ko otsailaren 9an ALDEKO txostena eman du. Hitzez hitz honakoa dio:

#### **TXOSTENA**

---

**GAIA:** Zumarte musika eskola birgaitzeko eta haunditzeko proiektuari txostena

**UDAL TEKNIKARIA:** Ibon Goikoetxea Retegi

**ESPEDIENTE ZBKIA.:** HZ.05/2017-0082

**DATA:** 2018-02-09

---

#### **AURREKARIAK**

- 2017ko abenduak 1ean Maialen Sagarna Aranburu andereak Zumarte Birgaitu eta Handitzeko Exekuzioa Proiektua aurkeztu du Usurbilgo Udalean.





Usurbilgo Udala

## **AZTERKETA ETA PROPOSAMENA**

Ingurumen txostenari dagokionez lorazaintza lanei duen eragina aztertu da, eraikinaren jasangarritasun irizpideak (geotermia etab...) beste teknikariaren esku utzita.

Zumarteko ezkiari dagokionez, Usurbilgo Udalak 2017ko udan aurrelanak egin ditu, eta ezkiaren kopa arindu egin du kimaketa berde baten bitartez, eraberritze lanak errazteko asmoz.

Egokitzat jotzen da ezkia babesteko aurreikusten den egurrezko tarima. Eta era berean eraikin berriko patioetan aurreikusten diren zuhaitzak ere. Sabaletako rebegetazioa belaze bidez egitea egokia da.

Kontutan hartu beharko da birgaitze proiektua exekutatzeko orduan, zuhaitzaren sutraiak eta kopa bera ere babestu beharko direla, eta ez da aurrekontuan horretarako partidari ikusi,

Ondorioz, ALDEKO txostena ematen da, beti ere, exekuzio garaian Zumarteko ezkiak babesteko neurriak hartu beharko direlarik. (sutraiak eta kopa)

Ibon Goikoetxea Retegi  
Ingurumen eta Nekazaritza teknikaria

## **EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILA**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ondoko idatzia helarazi du:

Agurne Alkorta Balbas andreak, "Zumarte" Musika Eskola Pribatuaren ordezkari gisa, musika-eskolaren instalazioak handitzeko egindako baimen-eskaera jaso dugu Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzan.

Aurkeztutako dokumentazioa ez ezik honako arau hau ere ikusi da: urriaren 27ko 289/1992 Dekretua, Euskal Autonomi Elkartearen "*Musika Eskola*" direlako arautu gabeko berariazko musika-irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarritzko arauak ezartzen dituen (1993ko urtarrilaren 4ko EHAA). Horiek horrela, honako hau jakinarazten dizut:

1. 289/1992 Dekretuan oinarrituta; eta batiere tosten honen gainerako ataletan adierazten diren baldintzak betetzen badira, proposatutako instalazioak egokitzat ematen dira "Zumarte" musika-eskola handitzeko.
2. Ikastetxeak, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntza Kode Teknikoa eta indarreko legertak ezartzen dituen higiene-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak bete beharko ditu.



Usurbilgo Udala

Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek eibetetzearen erantzukizuna.

3. Txosten honek ez du obrak edo jarduerak egitea legeztatzen, udal lizentziari, jarduerari, segurtasunari, irisgarritasunari, oztopo arkitektonikoak kentzeari, eta aplikagarriak izan daitezkeen indarreko beste arau batzuei dagokienez.
4. Txosten hau jaso, eta aurreikusitako lanak bukatutakoan, musika-eskolaren erakunde-titularrak obrak eginda daudela jakinarazi beharko du Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan, eta instalazio berrien behin betiko baimena eskatu.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko otsailaren 15ean.  
Eugenio Jimenez Ibañez  
IKASTETXE ETA PLANGINTZAREN ZUZENDARIA

Zumarte Musika Eskolaren birgaitze ekologikoa eta handitze Exekuzio Proiektua onartzeko eskuduna Usurbilgo Udaleko Plenoa da.

Gauzak horrela, udal teknikariek aldeko txostenak irakurri ondoren, Hirigintza Batzordeak, 2018ko otsailaren 27an egindako bilkuran, Xabier Arregi, Jone Urdampilleta eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin, eta Mirari Azurmendiren abstentzioarekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** Zumarte Musika Eskolaren birgaitze ekologikoa eta handitze Exekuzio Proiektua onartzea, udal teknikariek eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ezarritako baldintzekin.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## 2.- ZUMARTE MUSIKA ESKOLA BIRGAITU ETA HANDITZEKO OBRA KONTRATUA ESLEITZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA.

Alkateak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu.



Usurbilgo Udala

Espediente honek bi plegu jasotzen dituela adierazi du, batetik, klausula administratiboak eta, bestetik, klausula teknikoak.

Plegu hauen laburpen bat egingo duela adierazi du, batzordean hauei buruz jardun zirelako.

Prozedura ireki bat abiatu dela esan du, beraz, kaudimenak eta baldintzak betetzen dituen orok aukera izango duela lizitazio honetara aurkezteko.

Ohiko klausula administratibo eta teknikoez gain, bereziki garrantzia eman nahi izan zaiola dio sortzen den enpleguaren kalitateari, izan dadila ahal balitz kontratu egonkorren bidez eta baita kalitatezkoa.

Plegu hauen kodeketari begira, lan bereziak direla esan du, eta irakaskuntza zentroei begirako kode teknikoa erabiltzen dela.

Iraupenari dagokionez, exekuziorako urtebeteko iraupena aurreikusten dela esan du.

Kostuari dagokionez, bi milioikoa dela dio, BEZa barne.

Finantzazioari buruz azaldu du proiektu honek kreditu eskaera bat ekarri duela.

Ordainketa hileroko zertifikazioaren bidez egingo dela adierazi du.

Proiektuaren ebaluazioari begira, holakoetan ohi denez, 100 puntu direla maximoa eta bitan banatuta daudela dio, batetik, formula matematiko edo irizpide objetiboen arabera 60 puntu banatzen direla eta, bestetik, irizpide subjektiboen arabera 40 puntu banatzen direla azaldu du. Bi atal hauetako bakoitza nola banatzen den ere azaldu du.

Bestalde, aurreikusi dela dio obra hauek exekutatzekeo beharrezkoa dela bi lanketa azpikontratatzea, geotermiaren instalakuntza eta egurrezko egitura.

Aurkezten denak nolabaiteko kaudimen bat edo gaitasun bat erakutsi beharko duela dio landare-estalkiak egiteko, inpermeabilizaziorako eta zink-eko estalkiak egiteko.

Plegu teknikoei dagokienean, gehiago perfilatzen dela dio nolako ezaugarriak izango dituen obraren zuzendaritzak, pertsonalak ze ezaugarri bete behar dituen, segurtasun eta betebeharreko baldintzak, obraren itxiturak, seinalizazioa, etab.

Epeei dagokienez jakinarazi du iragarkia aldizkari ofizialean argitaratu eta 29 egun naturaleko epea izango dela proposamenak aurkezteko eta maiatzean obraren exekutazaila nor izango den jakitea aurreikusten dutela.

Amaitzeko, irizpenak jasotzen dituen puntuak irakurri ditu.



Usurbilgo Udala

Batzarkideek, Hirigintza batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Espediente zkia: ID.05/2017-0483

**Kontratuaren gaia helburua:**

Zumarte Musika Eskola birgaitu eta handitzeko obra burutzea.

**Zerbitzua kontratatzearen beharra edo egokitasuna:**

Zumarte Musika Eskolak gaur egun hainbat urritasun ditu, adibidez, eraikuntzako patologia eta arazoak (barneko hezetasunak, egituraren urritasun puntualak, egurrezko zoladura eta arotzerien egoera kaxkarra, fatxadetako pitzadura eta hezetasunak isolamendu eta iragazgaizte faltagatik, estalkiaren egoera txarra, e.a.), instalakuntzen gabeziak, isolamendu akustikoaren falta eta irisgarritasun baldintzak ez betetzea. Guzti honi eraikina handitzeko beharra gehitzen zaio, izan ere, jarduera baldintza egokietan emateko beharrezkoa da eraikinaren azalera handitzea. Guzti honegatik, idatzi da Zumarte Musika Eskola Birgaitu eta Handitzeko Proiektua, gaur egungo eraikinaren urritasunak modu integral batean konpontzeko eta jardueraren beharretara egokitu ahal izateko eraikina handitzeko; horretarako, eraikuntza jasangarri, ekologiko eta osasungarriaren irizpideak ere barneratu dira.

**Kontratu mota:**

Obra kontratua.

*Prozedurari dagokionez*

**Espediente-mota:**

Ohiko tramitazioa du.

**Esleipena egiteko bidea eta modua:**

3/2011 Legegintzazko Errege Dekretuaren arabera, prozedura ireki bidez.

**Baldintza Orriak:**

Espedientearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Zehatzen Orriak doaz. Agiri horietan jasotakoa jardunbidearen kudeaketa-beharrei eta baldintzei egokitzen zaie eta, batez ere, 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 115 eta 116 artikuluei.

**Araudi aplikagarria**



Usurbilgo Udala

1. Sektore Publikoen Kontratuen Testu Bategina arautzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilea eta urriaren 12ko 1098/2001 Erregelamendua.
2. Administrazio baldintza zehatzen orriak eta OS3 arkitektura-ko Ainara Sagarna, Maialen Sagarna y Juan Pedro Otaduy-k egindako proiektua.

### **Txostenak**

- Kontratazio Teknikariaren lege txostena.
- Kontuhartzailearen ziurtagiria.

### **Kontratua esleitzeko eskuduntza**

SPKLTBren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. puntuaren arabera kontratu hau esleitzeko eskuduntza Usurbilgo Udalbatza Plenoarena da.

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2018ko otsailaren 27an egindako bilkuran, Xabier Arregi, Jone Urdanpilleta eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin, eta Mirari Azurmendiren abstentzioarekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **E R A B A K I A**

**LEHENA:** Prozedura ireki eta ohikoaren bitartez Zumarte Musika Eskola birgaitu eta handitzeko obra kontratua esleitzeko kontratazio espedienteari onespena ematea.

**BIGARRENA:** Aipatu kontratua gauzatzeko, jarduteko eta esleipenerako oinarri bezala erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Orriei eta Preskripzio Teknikoen orriei onespena ematea.

**HIRUGARRENA:** 2018 urteko aurrekontuan 1.652.065,11 € gehi %21eko BEZari dagozkion 346.933'67 €, guztira 1.998.998'78 € gastua onartzea, 2018ko aurrekontua 1-6000-622-334-00-01 kontu-sailaren kontura (A/579-2017).

**LAUGARRENA:** SPTKLTB-k xedatutakoaren arabera, lizitazio iragarkia GAO-ra bidaltzea eta udaleko kontratatzaile profileen horren berri ematea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.



Usurbilgo Udala

### **3.- GALDERA-ESKAERAK.**

Ez da galdera edo eskaerarik izan.

**Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:22etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**